

24

Asteazkena17:30Egurtzegitik

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

Antolatzaileak: herritarrak, eragileak eta Udala elkarlanean.
17:30ean abiatuko da eta 18:30ak aldera iritsiko da plazara.
Ibilbidea: Harane-Egurtzegi-Kalezar-Babarrun biribilgunea-Mikel Laboa plaza-Dema plaza.
*Eguraldiaren arabera ibilbidean aldaketak egon daitezke.
Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira galtzagorri, joaldun, adar-jole eta trikitilarien laguntzarekin. Haurrak agurtu, haien nahi eta eskaerak entzun, eta mendira itzuliko dira gauean etxe guztietara iritsi ahal izateko.
Galtzagorriek bihurrikariaren bat egingo dute Mikel Laboa plazan eta ondoren, Dema plaza nahi duenak Olentzero eta Mari Domingirekin argazkia ateratzeko aukera izango du.
Abenduaren 12tik aurrera postontziak jarriko dira herriko hainbat gunetan, gutunak jaso ahal izateko.

27

Larunbata13:30Usurbilgo frontoia

650 Usurbil Bizi Gabonetako otarren banaketa

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Kulturgunea eta Hurbilago elkarteak.
Herriko ekoizle eta sortzaileen produktuekin osatutako 100 otar banatuko dira, abenduaren 27an, 13:30ean, Usurbilgo frontoian. Abenduaren 1etik 26ra Hurbilagoren sal-tokietan erosketak egitearen truke, zozketarako txartelak eskuratu ahal izango dituzte bezeroek. Abenduaren 26an egingo da zozketa: saltoki bakoitzak deituko die bere esta-blezimenduan sarituak izan diren bezeroei.

28

Igandea18:00Sutegiko auditoriumean

Sasi guztien gainetik... Gala magikoa

Sarrerak: 3,5 € usurbilkultura.eus webgunearen bidez.
Ba al dakizu Olentzero ere magoa dela? Abenduaren 28an Euskal Herriko bost mago elkartuko dira magia hau Usurbili erakusteko. Baina seigarrena? seigarren magoa Olen-tzero da. Zori txarrez, Olentzerok ez du aukera izango egun horretan gurekin elkartzeko baina bere eta Gabonen magiaren zatitxo bat lortu dugu, galan erakusteko asmoz.
Oier Agirresarobe mago usurbildarrak parte hartu eta gidatuko du ekitaldia.
Bost mago izango ditugu gurean: Eleder Magoa, Bilbotik; Ruben, Irunetik; Potx Magoa, Oñatitik; Enzzo Zientzialaria Markinatik eta Oier Usurbildik.

31

Asteazkena17:00Frontoian

San Silvestre-Hurbilago herri lasterketa

Antolatzailea: Hurbilago elkarteak.
Izen-ematea: gertuago.eus webgunean, abenduaren 15etik 26ra. Abenduak 31ean, 16:00-16:30 bitartean.
San Silvestre herri lasterketa antolatuko du Hurbilago elkarteak. Lasterketaren amaieran, opariak zozketatuko dira partaideen artean.

31

Asteazkena01:00Frontoian

Urtezahar Gaua: Andoni Djarekin

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
Sarrera: doan.
Gauerditik aurrera Dj gaua izango dugu.
Instagram: @Tintz_dj

GABONETAKO HAUR PARKEA

URTARRILAK 2,3 ETA 4
11:00-13:00 eta 16:30-19:30
Oiarde Kiroldegian.
Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
Adina: 2-12 urte bitartekoentzat · **Sarrera:** Doan.

IKASTAROAK

LEIRE LAZKANOREKIN SENDABELAR TAILERRA: HERI-MEDIKUNTZA, GURE TRADIZIOA
Antolatzailea: Txokoargi Elkartea.
Non: Txokoaldeko Txokoargin.
Noiz: Abenduak 12 · **Ordua:** 18:00-20:00
Izen ematea: 10 €. Telefonoz: 619 591849 (Arratsaldeko 16:00etatik, 18:00etara)
Gehienez ere, 12 lagun.
Belaunaldiz belaunaldi etxean mantendu ditu-gun ohitura zaharrak bilduko ditugu, errezeta koadernoak sortuz.

IDOIA ARTUZAMONOAREKIN ERREGE OPILA EGITEKO IKASTAROA
Antolatzailea: Txokoargi Elkartea.
Non: Txokoaldeko Txokoargin.
Noiz: Abenduak 13 · **Ordua:** 10:00-12:00
Izen ematea: 15 €. Telefonoz: 619 591849 (Arratsaldeko 16:00etatik, 18:00etara)
Gehienez ere, 12 lagun.

DEIALDIA

GERO BAT GAURDANIK 2. TOPAKETAK
Abenduak 19-26
Antolatzailea: Arrobotxulo.

TXURI URDINERA IRTEERAK
Abenduaren 22, 23 eta 26an, goizez.
Ekintzei buruzko informazio gehiago: Gaztelekuan, gaztelekuausurbil@gmail.com · Tel. 688 813 853

BISITA GIDATUAK

- Abenduak 8 Museo Irekia** 11:00 Sutegi.
- Abenduak 19 Zaintzaren Usurbil** 10:00 Udaletxea.
- Abenduak 20 Salbatore Elizaren ondarea** 11:00 Salbatore Eliza.

Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>
Telefona: 747 485140 turismoa@650usurbilbizi.eus

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

AURREZ AURREKOAK

Gmail. Posta-elektronikoa baino gehiago (4 ordu)
Abenduak 01-02 09:00-11:00

Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPeKin (16 ordu)
Abenduak 03-15 09:00-11:00

Ikasi online banka modu erraz eta seguruan erabiltzen (8 ordu)
Azaroak 16-19 09:00-11:00

Online izpideak osakidetzarekin (4 ordu)
Abenduak 22-23 09:00-11:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Abenduan Kzgunea: Goizez 09:00-13:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00	1	2	●	4	5	●	●
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	●	9	10	11	12	●	●
Itxita	●	15	16	17	18	19	●
Goizez	●	22	23	●	26	●	●
		29	30	●			

Sutegi Udali Liburutegia · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

Zuen deialdiak zabalatzeko, bidali hilaren 15a baino lehen kultura@usurbil.eus helbidera.

Usurbilgo Udala
Kultura, Euskara eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

usurbilkultura.eus
Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko

USURBIL KULTURA 2025eko abendua			
	Larunbata 17:00 Oiarde Kiroldegian	PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE: OSTIRALA IRITSI DAI EMANALDIA	azaroak 29
	Larunbata 22:00 Aginagako Eliza Zaharrean	EUSKARAREN GALA	azaroak 29
	Astelehena Egun osoz	MIKEL LABOA GOGOAN	1
	Astelehena 17:30 Potxoenean	TREBA: GURE EMOZIOAK KUDEATZEN, SEME-ALABEN BIDELAGUN IZATEKO	1
	Asteazkena Egun osoz	EUSKARAREN EGUNA	3
	Osteguna 18:00 Sutegi liburutegian	POX, MOX ETA TRUMOI IPUINAREN AURKEZPENA	4
	Asteartea 16:45 Sutegi liburutegian	"AITONA FLOREN" IRAKURKETA SOLASALDIA	9
	Osteguna 18:30 Sutegi Liburutegian	"BEKATUA" IRAKURKETA SOLASALDIA ALAINE AGIRREKIN	11
	Ostirala 13:00 Sutegin	MUNDUALDIA: GAZAKO SOL BAND (DBH3 ETA 4)	12
	Ostirala 19:00 Zubietan 20:00 Aginagan	AKELARRE: MAREAREN KONTRA DOKUMENTALA	12
	Ostirala 18:30 Sutegi Liburutegian	"JOSTORRATZA ETA HARIA" LIBURU AURKEZPENA YOLANDA ARRIETAREKIN	12
	Larunbata 11:00 Udarregi pareko zelaian	MUNDUALDIA: KRIKET ERAKUSTALDIA	13
	Larunbata 11:00 Sutegin	INDEPENDENTZIA EGUNEKO HITZALDIA	13
	Larunbata 14:00 Frontoian	INDEPENDENTZIA EGUNA: BERTSO BAZKAIRA	13
	Larunbata 17:00 Askatasuna plazan	GAZAKO SOL BAND TALDEAREKIN HITZALDI MUSIKATUA	13
	Larunbata 20:00 Eliza Zaharrean	"ALMAZENEAN" ANTZERKIA	13
	Larunbata 23:00 Frontoian	KONTZERTUAK FRONTOIAN: ERTZ, ASGARH...	13
	Igandea 18:00 Sutegin	AKELARRE: MAREAREN KONTRA DOKUMENTALA	14
	Igandea 16:30	SANTUENEAKO ZUHAITZA APAINTZEA ETA ARGIAK PIZTEA	14
	Igandea Goizean, frontoian	NOAUA! SANTOMAS AZOKA	14
	Asteazkena 18:30 Salbatore Elizan	ZUMARTEKO ABESBATZEN GABONETAKO KONTZERTUA	17
	Aste osoan Herrian zehar	ARROBITXULO: GERO BAT GAURDANIK 2. TOPAKETAK	19
	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO ZINEA:	21
	Igandea 18:30 Santuenea 12an	SANTOMAS EGUNEKO TXISTORRA BANAKETA	21
	Asteartea 18:00 Eliza Zaharrean	OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA AGINAGAN	23
	Asteartea 19:00 Sutegin	IÑAKI AGIRRESAROBAREN DIAPORAMA	23
	Asteazkena 17:30 abiatu 18:30 plazan	OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA	24
	Asteazkena 18:00 Santuenean	OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA	24
	Larunbata 13:30 Frontoian	650 USURBIL BIZI GABONETAKO OTARREN BANAKETA	27
	Igandea 18:00 Sutegin	SASI GUZTIEN GAINETIK... GALA MAGIKOA	28
	Asteazkena 17:00 Frontoian	HURBILAGO SAN SILVESTRE HERRI LASTERKETA	31
	Asteazkena 01:00 Frondoian	URTEZAHAR GAUA ANDONI DJAREKIN	31
	Kiroldegian 11:00-13:00 eta 16:30-19:30	GABONETAKO HAUR PARKEA	urtarrilak 2-3-4

2025eko **ABENDUA**

USURBIL

Kultura

AKELARRE

MAREAREN KONTRA

ABENDUAK 12 eta 14

MAREAREN KONTRA dokumentala

EKINTZAK

EUSKARAREN ASTEA

Azaroak 29

Larunbata 17:00 Oiardo Kiroldegian

PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE:
"ZERUA LAPURTU DUTE" IKUSKIZUNA

Antolatzaileak: Noaua! eta Usurbilgo Udala.
Sarrerak: 8€ usurbilkultura.eus webgunean.

Azaroak 29

Larunbata 22:00 Eliza Zaharrean

5. EUSKARAREN GALA HEMEN DA!

Sarrerak: usurbilkultura.eus / Arrate Ostatua — 10€

Aginagako Eliza Zaharrean euskal kulturaren festa handi bat ospatuko dugu: musikariak, bakarriketariak, dantzariak, magia eta marrazkigintza... dena giro berezian!

Oholtza gainean izango ditugu: Agus Korrontzi, Jon Maia, Petti, Xabin Fernandez, Eider Arsuaga, Asier Kidam, Esti Curiel, Mikel Bermejo, Ilargi eta Unai Gaztelumendi.

Eta gainera... Fotokoola, aurkezle txoriburuak, DJ Totoro eta giro ezin hobea!

Ez galdu urteko euskararen festa!



1

Astelehena Egunean zehar Mikel Laboa plazan

MIKEL LABOA GOGOAN

Hamazazpi urte dira Mikel Laboa hil zela. Usurbilen hainbeste maite genuen Mikel gogoan izango dugu egunean zehar bere musika entzunez. Horrekin batera, azaroaren 28tik abenduaren 2ra bitartean, oroimen eta gorazarre mezuak idatzeko Erregistro Liburua eskuragarri egongo da Sutegi udal liburutegian.



2

Asteartea 16:20 Agerialdeko patioan

LIBURUEN TRUKE AZOKA

Euskarazko liburu truke azoka HH5 eta LHko ikasleek etxetik aldezturik ekarritako liburuak beste batzuegantik trukatzeko aukera izango dute.

3

Asteazkena Egun osoan zehar Ikastolan eta herrigunean

EUSKARAREN EGUNA

Antolatzaileak: Udarregi ikastola, Usurbilgo Kantu Taldea eta Zumarte Musika Eskola.

Goizean zehar, festa ikastolan: HHko haurrek buruarinak eta dantza izango dute lagun hamaiketako berezia egin aurretik. Arratsaldean, tailerrak eta kantagintza Ageri Alden bertan 16:10 inguruan hasita.

LHko haurrak euskararen eta euskal kulturaren bueltan jolasean ibiliko dira herrian zehar (Kiroldegian, euria balitz), eta 12etan, euskararen gorazarrea kantuz Mikel Laboa plazan. DBHkoek Usurbilgo esamolde eta hitz bereziak landuko dituzte eta bertsolariez gozatzeko aukera ere izango dute, besteak beste.

Arratsaldean, 18:00etan hasita, kantuan aritzeko aukera izango da Usurbilgo Kantu Taldearen eta Zumarteko ikasleen eskutik. Herriko frontoitik abiatuko dira kalejiran. Kantu-paparak egunean bertan banatuko dituzte edota aurrez eskuratu ahal izango dira Potxoenean.

1

Astelehena 17:30 Potxoenean

Treba gurasoak hitzaldia: Miren Ros: "Gure emozioak kudeatzen, seme-alaben bidelagun izateko"

Antolatzaileak: Hitz Aho Guraso Elkartea, Gazteak, Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Norentzat: haur eta nerabeen gurasoentzat.

Izen-ematea: doan. usurbilkultura.eus webgunearen bidez. Plaza-kopurua mugatua da.

Historikoki eta belaunaldi batzuetan emozioak ezkatatu izan dira. Guraso askok ez dute gai honen inguruko eredu osasungarriak jaso, eta berebiziko garrantzia du horri leku bat egiteak. Landuko diren edukiak eta gaitasunak: Emozioak ulertzen. Zer dira emozioak? Eta sentimenduak? Zer informazio ematen digute? Zertarako balio dute? Ze onura dakartzate? Emozioak kudeatzeko gakoak. Pausoz pauso./Baliabide praktikoak adimen emozionala garatzeko eta seme-alaben bidelagun osasungarriak izateko.



AKELARRE: MAREAREN KONTRA DOKUMENTALA

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Zubieta eta Aginagako auzo elkarteak.

Sarrerak: doan. usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Iraupena: 85 minutu.

Akelarre musika taldeak eszenatokiaren gaineko 30 urte baino gehiagoko etapari amaiera emango dio bere ibilbide musikar oparoaren jatorria eta unerik adierazgarrienak erreparatzeko dituen dokumental batekin. "Akelarre: marearen kontra" taldea eta bere jarraitzaileak musikarekiko pasioaren bidez elkartzen dituen filma da. Dokumental hau bizitza ulertzeko modu baten aitorpena da.

ABENDUAK 12, OSTIRALA

19:00 Zubieta Kaxkapen

20:00 Aginagako Eliza Zaharrean

ABENDUAK 14, IGANDEA

18:00 Sutegiko auditoriumean.

Emanaldi honetan Jexuxmai Lopetegi, Akelarreko kidea, bertan izango da.



13

Larunbata 20:00 Eliza Zaharrean

"Almazenean" antzerkia

Antolatzaileak: Eliza Zaharra.

Sarrerak: usurbilkultura.eus / Arrate Ostatua — 8€

Erretreta hartzeko dagoen arduradunak (Iker Galartza) eta bere lanpostuan ordezkatuko duenak (Zuhaitz Gurrutxaga), ezinbestean, bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz deus gertatzen ez den almanen huts batean. Erlojuaren tik-tak okerra, bi ezezagunen arteko isilune deserosoa, esperon egotearen amorrazioa, bi pertsonaien arteko gatazka eta gezur handi baten zama... Baldintza guzti horien baitan, bi langileen arteko harremana estutzen joango da eta amankomunean daukaten zera horrek lotuko ditu betirako: gaitzaileen kontzientzia.

David Desola idazle kataluniarren komedia zorrotz eta garrantz honek lan munduan pairatzen den esplotazioa eta kapitalismoaz hausnarketa egiten du. Antzerki-lan honek Hermanos Machado Saria jaso zuen 2003an.



Abenduak 13, larunbata INDEPENDENTZIAREN EGUNA

Antolatzaileak: Enai Buruntzaldea

11:00 Hitzaldia (Sutegin)

14:00 Bertso-bazkaria (Frontoian). Tikitak, 15 €

19:30 Mobilizazioa eta ekitaldia (Frontoian)

23:00 Kontzertuak (Frontoian): Ertz eta Asgarth...

14

Igandea Goizean Usurbilgo Frontoian



Noaua! SanTomas azoka 2025

Antolatzaileak: Noaua! Kultur Elkartea · **Nori zuzendua:** edonorentzat.

SanTomas Eguna ospatuko dugu heritar guztiekin. Bertan izango ditugu, Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak. Horretaz gain, talo, gaztain errea, gozoak eta bestelako produktuak ikusi eta erosteko aukera ere izango da.

Usurbil eta inguruko babarrun zein sagardo ekoizpen partikularren arteko lehiaketa izango dugu. Bi lehiaketetako sariak: 300€ eta txapela lehengo sailkatuei, bigarreniei 150€ eta 60€ hirugarren sailkatuei.

Bi lehiaketa hauetan parte hartzeko Noaua!ko egoitzara, babarrun kilo bat eta sagardo lehiaketan 6 botila aurkeztu beharko dira. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna abenduak 5 izango da.



LIBURUTEGIKO EKINTZAK

Antolatzaileak: Sutegi Udal Liburutegia

ABENDUAK 4, OSTEAGUNA

"Pox, Mox eta Trumoi" ipuinaren aurkezpena

18:00 Sutegi Liburutegian · **Iraupena:** 45 minutu.

Norentzat: 2-6 urte bitarteko haur eta euren familientzat.

Yolanda Arrietak NOAUA!rentzako prestatu duen "Pox, Mox eta Trumoi" ipuinaren aurkezpena.



ABENDUAK 9, ASTEARTEA

"Aitona Floren" Irakurketa solasaldia

16:45 Sutegi Liburutegian · **Iraupena:** 60 minutu.

Norentzat: 9 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat.

Mintzagai izango dugun liburua, Euskadi Saria irabazi berri duen "Aitona Floren". Liburuak eskuragarri ditugu Liburutegian.



HITZAK JOSTEN SAIO PAREA

ABENDUAK 11, OSTEAGUNA

"Bekatua" Solasaldia Elaine Agirrerren bitartekaritzaz

18:30 Sutegi Liburutegian · **Iraupena:** 75 minutu

Mintzagai izango dugun liburua, Goizatz Labandibarren "Bekatua". Liburuak eskuragarri izango ditugu Liburutegian.



ABENDUAK 12, OSTIRALA

"Jostorratza eta Haria" liburu aurkezpena

18:30 Sutegi Liburutegian · **Iraupena:** 60-75 minutu

Yolanda Arrietak, duela 30 urte idatzi zuen "Jostorratza eta haria" liburuaren berrargitalpena aurkeztuko du. Liburuak eskuragarri izango ditugu Liburutegian.

MUNDUALDIA 2025

Mundualdiak, Usurbilgo jatorri aniztasuna ospatzeko festak, hiru eguneko egitaraua izango du. Aurtengo hitzordua Palestinari eta palestinarrei elkartasuna adierazteko baliatu nahi da, eta helburu horrekin osatu da egitaraua: besteak beste, Sol Band Gazako musika taldeko bi kide izango dira Usurbilen.

ABENDUAK 12, OSTIRALA

13:00 Gazako musika talde Sol Bandeko kideekin hitzaldi musikatua, DBH3 eta DBH4ko ikasleentzat, Sutegin. Aurrez, Oinarrizko Lanbide Hastapeneko sukaldaritza ikasleek prestatutako hamaiketako berezia.

ABENDUAK 13, LARUNBATA

11:00 Kriketa: erakustaldia eta Eskola Kiroleko saioa, Udarregi pareko zelaian (euria bada, Agerialdeko frontoi estalian), San Sebastian Cricket Club-en eskutik.

17:00 Gazako musika talde Sol Bandeko kideekin hitzaldi musikatua, Aska-tasuna plazan.

Horren ostean, hainbat jatorritako jakien dastaketa, Leandro Leiva bakarlari argentinar-usurbildararen abestiez lagunduta.

ABENDUAK 21, IGANDEA

17:00 Haurrentzako zinema: "Azur eta Asmar"

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala.

Laguntzaileak: Ziortza Gazte Elkartea.

Sarrerak: doan: gonbidapen bidez, usurbilkultura.eus-en

Urtea: 2006.

Iraupena: 99 minutu.

Gaiak: Anaitasuna, errespetua eta kulturartekotasuna

Baziren behin Azur, ile-horidun begi urdinekoa eta gizon aberats baten semea, eta Asmar, begi beltzeko beltzarana eta inude baten semea. Anaia modura hazi zituzten lurralde berde eta loretsu batean. Bizitzak modu ankerrean banatu zituen. Baina Azurrek ezin izan zituen ahaztu Eguzkiaren Herrialdean gertatzen diren eta inudeak kontatzen zizkion maitagarrien istorioak. Hazterakoan Dijnntarren Miragarriaren bila, bere ametsen herrialdera, joatea erabakiko du. Bertan miragarria bilatzeko asmotan den Asmarrekin egingo du topo. Biek Mirarien Herrialdeko arriskuei eta sorginkeriei aurre eginez aurkituko dute.

17

Asteazkena 18:30 Salbatore Elizan

Zumarteko abesbatzen Gabonetako kontzertua

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola.

23

Asteartea 19:00 Sutegiko auditoriumean

Iñaki Agirresaroberen Diaporama emanaldia

Iraupena: 40 min.

Koloreek ematen duten bizitasuna ardatz harturik hainbat urtetan ateratako argazkiez osaturiko bilduma eskainiko da.



SANTUENEAKO GABONETAKO EKINTZAK

Antolatzaileak: Santuenea Kultur Elkartea.

ABENDUAK 14, IGANDEA

Zuhaitza apaintzea

16:30 Santueneako frontoian.

18:00 Eguberriko argiak piztea.

ABENDUAK 21, IGANDEA

San Tomas eguneko txistorra-banaketa

Frontoian

17:00 Gabonetako eskulanak.

18:30 Txistorra banaketa.

San Tomas Eguna musikaz girotua egongo da Gorka Mendirekin. Santuenea Kultur Elkarteko bazkideen artean otarra zozketatuko da eta elkarteko haurren artean txeritxoaren zozketa egingo da.

ABENDUAK 24, ASTEAZKENA

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Santuenean

Ordua: 18:00

ABENDUAK 29 ETA URTARRILAK 7

Buztinarekin jolasean eta buztina margotzea

17:00 Ludotekan (Santuenea 16)

ABENDUAK 30, ASTEARTEA

Mahai jolasen topaketa

16:30 Ludotekan (Santuenea 16)

Izen-ematea: santueneake@gmail.com edo 621095644



AGINAGAKO GABONETAKO EKINTZAK

ABENDUAK 20, LARUNBATA

Gabonetako zuhaitza eta apaingarrien muntaia

17:00 Eliza Zaharrean.

ABENDUAK 23, ASTEARTEA

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Aginagan

18:00 Eliza Zaharrean

Menditik jaitsiko da Olentzero eta Eliza Zaharrean bukatuko du ibilbidetxoa. Bertan, eskutitza emateko aukerarekin batera, gaztainak banatuko dira euskal gabon kantekin girotuz.

